



## **DIRU SARRERAK**

Diru sarrerei dagokionez gure produktuak hainbat familitan banatu ditugu, hauetako bakoitzak errentagarritasun ezberdin bat emango dutelarik. Hautatutako familiak honakoak dira: edariak, opilak, tortilak eta kafeak/infusioak.

Kontuan izan behar dugu kafetegi bat garenez, ezin ditugula produktuen prezioak edonolakoak jarri. Konpetentzia handia dago sektore honetan eta prezio estandarretara egokitzen saiatu behar gara, bezero guztiak nahi duten ahalmena izan dezaten, baina gure enpresak galerarik izan gabe.

- Edariak: Konpetentzia dela eta prezio estandar batzuetan oinarritu behar gara, horregaitik, % 0.05-% 0.1 inguruko igoera ezartzea aurreikusten dugu.
- Opilak: Produktu hauekin errentagarritasun handiagoa lortu dezakegu. hauen prezioari %25 inguruko igoera aurreikusten dugu, izan ere gure helburua Gureakekin elkarlanen aritzea da eta hauei ohiko lanbide batera gerturatzea.
- Tortilak: Erabiliko ditugun osagaiak ekologikoak eta Km0 izango dira, horregatik %10eko igoera aurreikusten dugu.
- Kafeak/infusioak: Hauetan irabazi margin oso txikia dugu, prezio estandarrak daudelako. Prezio igoerari dagokionez % 0,05-%0,1 aurreikusten dugu.